



STR taldea Donostian sortu zen 2019ko hasieran, baina bizkaitarra da. Iker Villa (Revolta Permanent), Oihan Moreno eta Aritz Mendiola (LauKatu) izan ziren proiektuaren hastapenetan, baina "Track 1" abestia grabatu ondoren, taldea egonkortzea eta gorpuztea erabaki zuten boskote bihurtuta. Xabier Bengoa (LauKatu), eta Lander Campos (dantzari txapelidun ohia) batu zitzaizkien. Bost musikariren gustuak pop-trap estilora hurbildu dira estreinako unetik. Single solteak atera dituzte, baina 2021eko uztailean 6 abestiko EP digital bat argitaratu zuten, "Göxö".

STR taldearen "YAHTOYL" diskoa 2021eko udan grabatu da Gaua estudioetan (Frui, Bizkaia). Ekoizpen artistikoa (Aitor Abio eta Oihan Moreno). Nahasketa eta masterizazioa (Asier Zubelzu). Laguntzaileak "Maitatzearen mina" abestia (Joseba Aparicio -tronpeta-, Eneko Arraibi -saxo tenorra-, Aitor Valcarlos -tronboia-, Manex Agirre -saxo baritonoa-). Diseinua Ander Lizarragak egin du.

STR taldeak disko berezia argitaratu du: "YAHTOYL" (You Always Hurt The One You Love) edo "BMDMD" (Beti mintzen duzu maite duzuna). Bihotzetik bihotzera doan diskoa da. Digipackak 9 abestiko Pen Drive bat du, eta bonus track bezala 6 abestiko "Göxö" EPa. STR taldearen diskoak pop-trapa eta autotunea ditu osagai-laguntzaile, EDM (Electronic Dance Music), future bass, pop-funk eta askotariko zertzeladak. Letretan sentimenduen uhinak doinuetara ekarri dituzte, beharrezkoa ikusi baitute irudiaren estetikaekin lotzea STR taldearen ikuskizuna. Abestiek intentsitatearekin jokatu dute baina tartea ere badago naretasun malenkoniatsuaz bustiriko doinuetarako. Maitasuna, harremanak, bizitza, sentimenduak, sexua dira taldeak erabilitako gaiak testuak biribiltzeko, queer zipriztinekin. Eta kritikarako oneak ere badituzte, gizartea kritikatzeko dute honek duen obsesioa sentimenduei eta gauzei izenak jartzeko eta kalifikatzeko.

Iker Villa (ahotsa)

Aritz Mendiola (ahotsa)

Xabier Bengoa (teklatuak, gitarra)

Oihan Moreno (teklatuak)

Lander Campos (bateria eta perkusioak)



♥ BMDMD ♥

"BMDMD" akronimoa (Beti mintzen duzu maite duzuna) mantra bat bihurtzen da abestiaren amaierara heltzen zarenerako. Diskoaren sustraia balira bezala, abesti honek zabalduko dizkigu "YAHTOYL" diskoaren ateak. Beldur sakonenak, errua eta antsietatea landuko dituen pieza da. Oroitzapen gozoak gogoratzen hasi, familia, ama, aita, aitona, lagun eta maitasunak. Azken honetara heltzean, oroitzapenak ilundu egingo dira, eta norberaren "barne deabruak" azaleratuko dira. Intseguritateak janda, zure buruari min egiten hasitea, pertsonaia baten sorrera, norberatasunaren galeraren ostean datorren motibazio galtzea. Gauza guzti hauen sorrera ni naiz eta onartzen dut. Ez, ez da nire barne deabruak arintzea, baina bidean gaude. Trap oinarri baten gainean, bibolin soinua goian daude. Ez zaigu ohikoa. Gero, "future bass" eta trap melodiko ukituek emango diote forma abestiari.

♥ FEELIN ;) ♥

2020ko udan egindako bidaia batetik irten zen abestia. Valladolid inguruko herri txiki batean geundela gaueko 03:00etan autoa hartu eta Pucelan bertan igaro genuen gau osoa taberna baten bila. Ez genuen ezer aurkitu, baina denda txiki batean bi botila ardo erosi eta lagun baten etxean amaitu genuen penak eta komeriak kontatzen. Barre eta negar malko haiek zeharo batu gintuzten. Badauka, ordea, abestiak zantzu ilun bat, eta diskoaren narratiba jarraituz, norberak bere beldurrak eta arazoak mahai gainean jartzean, eta azkenik hauen kontzientzia hartzean, badago erru sentimendu bat eta hori estaltzeko ezetz esaten diegu gure sentimenduei, horregatik "I've been feeling all right" edo "azken aldia ondo sentitzen naiz" maskara bat bihurtzen da, ondo sentitzen naiz alkoholean edo drogetan bustita nire arazoak, ez direlako horren handi ikusten. Vocoder bat oinarri gisa hartuz, akorde sekuentzia alaia eta poperoa idatzi genuen.

♥ MAITATZEAREN MINA ♥

"Maitemintzea" oso hitz poetikoa eta polemikoa da, eta idazleentzat, mina. Guretzat ere ez da gutxiago. Bihotz apurtuaren eta bidean utzitako zatien kontzeptua gehien berenganatzen duen abestia da. Zerbait edo norbait maitatzeak derrigorrezko peaje emozionala suposatzen du, Bilbo-Donostia bidesaria baino gogorragoa da... Pop-funk oinarrian, Dua Lipa eta Half Alive bezalako musikariek abestietatik edan du, biolin eta tronpeten indarragatik.

♥ ESCAPARATE ♥

Iragana beti daukagu presente. Horrela idatzi genuen "Escaparate", telebistako garaitik honako eboluzioaz hitz egiten dugu, fama efimero hark egindako kalte eta onurez, eta bide hark eraman gaituen lekua erakutsiz. Bai, oraindik erakuslehoan gaudela dirudi, beti atzetik datozen ahots txiki horiek gogorazten digute, egunero. Guk erabaki ez dugun zerbait da ordea, eta orain gu garen bezalakoak erakustean, pertsonaia haiek alde batera uztean, dagoeneko ez dagoenean "Mr. nice guy" gehiago, orain kontra eta interesa galduta zoazte. Kantua kritika bat da, bai, baita geure buruarekiko onarpen gutun bat ere. Indie pop elektronikoaren bertsio berria sortu dugu abesti honetan. EDM doinuak eta eritimoa baina tempo lasaigo batekin.

♥ TEBUSKÉ ♥

Nor naiz? Zer demontre gara orain eta zer izango gara bihar? Zuzenak al dira harturiko bideak, erabakiak, baiezkak eta ezezkoak? Gure nortasunaren etengabeko bilaketa horretan gaudenok, oso ongi ezagutzen ditugu galdera hauek. Erantzunak, ordea, ez hainbeste. Gure buruaren eta gure borondatearen desaktibatze prozesu luze baten ondorioz sortu da abesti hau, inertiaren indarrak soilik ibili ondoren honaino iritsi gara, leku eta ingurune ezezagun batera, non dena arrotza den. Gaur, gidari gisa jarraitzen dugu, baina galdera horien guztien erantzunak oraindik bilatuz. Betiereko marka emozional bat izango ez delakoan aurrera egiten dugu, inertiaren indarrak berriz ere bultzatuta. Musikak eritimo alaia du eta letrak, ez. Kontraesanean gaude musika eta letra. Justin Bieber-en azken lanetako pop ukituak nabari dira.

♥ KRISTALAK ♥

Bizitza eta bere putadak. Gauza onek askotan ez dute kaka guztia estaltzen, ez horixe. STR taldearen estreinako kantua da, 2018an idatzitakoa, urte latza taldeko batzuentzat. Grafikoagoak ezin gara izan, kristal bat apurtzen den moduan guk gure burua apurtu genuelako, edo bizitzak gu apurtu gintuen. Heriotzak, langabeziak eta maitasunak dute errua, besteak beste. Abestiak dakarren mina eta amorrua, leloan azaltzen den baxu oldarkorrek islatzen ditu. Abesti xamur bat izatetik, abesti pisutsu eta mingarria izatera pasatu da musikaren bitartez.

♥ QUIERE MÁS ♥

Gure abestirik zikinena da. Zikina zentzu onean. Ibilizko bidean musikak lagundu gaitu, eta aldi berean gauza eta pertsona jakin batzuekin gozatzeko pribatu. Gure inguruneak halaberrez jasan izan du guk aspaldi hartutako erabaki hori, eta oraindik gehiago nahi dugu. Ezerekin asetzen ez diren horietakoak garelako, are gehiago gure balaunaldiak bizi duen modernitate likidoaren influentziaren menpean. Dena orain eta azkar, eta beti gehiago nahi dugu. Honek ez dauka itxura onik... ezta? Behin gitarra batekin ideia sortu genuen eta mugikorarekin grabatu gero sampleatzeko. Hortik aurrera eritimo alaia da baxu bat gehituz, lehen beat-a sortu genuen. Argi eta garbi ikusten dira Ameriketako traparen soinua ilunak.

♥ TARTA GAZTANA ♥

Sadboy edo softboy-ak gara, argi daukagu. Ez nahita, psikologoek beraien lana egiten dute baina, dirudienegure burmuinekin eta bihotzek burugogorak dira eta berdin jarraitzen dute. Hori bai, hainbeste kaka bota ostean zerbait goxoa behar genuen diskoa amaitzeko, postre goxo bat. Eta, zein da gure postreik gustukoena? Laztanaz eta mimoz egindako tarta, gazta-tarta, alegia. 80ko hamarkadan Bronx-eko traparen eritimoa EDM eta future bass soinuekin nahasi ditugu. Igoera iraunkorrean mantentzen da, Coldplay bezalako taldeen brit-poparekin bustiz, eta amaierako klimaxa.